VICTORIA EUGENIA
Antzokia

DONOSTIAKO ZURRIOLA HONDARTZAN 2025EKO JAZZALDIAREN EDIZIOAN ANTOLATUTAKO KONTZERTUAK EGITEKO AGERTOKI BATEN HORNIDURA, ALOKAIRU ERREGIMENEAN, MUNTAIA, DESMUNTAKETA ETA MANTENTZE LANAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

AURKIBIDEA

1. **KONTRATUAREN XEDEA**
2. **AGERTOKI OSOA ETA HORNITU BEHARREKO BESTE OSAGARRI BATZUK**
3. **KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK**
4. **LEKUA ETA DATAK**
5. **JAZZALDIARI DAGOZKION ZEREGINAK**
6. **GUTXIENEKO GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**

IFK-CIF A20965414

VICTORIA EUGENIA
Antzokia

DONOSTIAKO ZURRIOLA HONDARTZAN 2025EKO JAZZALDIAREN EDIZIOAN ANTOLATUTAKO KONTZERTUAK EGITEKO AGERTOKI BATEN HORNIDURA, ALOKAIRU ERREGIMENEAN, MUNTAIA, DESMUNTAKETA ETA MANTENTZE LANAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUTEN ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAk (aurrerantzean, JAZZALDIA) 2025eko 60. Jazzaldian Donostiako Zurriola hondartzan antolatutako kontzertuak egiteko agertoki bat hornitzea, alokairu-erregimenean, eta agertoki hori muntatu, desmuntatu eta mantentzea, plegu honetan, administrazio-klausula partikularren orrian eta karatulan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratu mistoa da, hornidura-kontratu bati eta zerbitzu-kontratu bati dagozkien prestazioak dituelako, eta haren araubide juridikoa Administrazio-Klausula Partikularren Agiriaren 34. klausulan jasota dago.

Kontratuaren CPV kodea honako hau da:

- 45237000-7 (Agertokiak eraikitzeko lanak).

2. AGERTOKI OSOA ETA HORNITU BEHARREKO BESTE OSAGARRI BATZUK

Zehazki, honako material hauek hornitzen dira:

A) <u>ZURRIOLA HONDARTZAKO AGERTOKI OSOA</u>

A).1. PLATAFORMA (ZIURTATUA, 3. klausulako C letran adierazitakoaren arabera):

- 26x13 m-ko azalera erabilgarria duen plataforma (zoru fenoliko irristagaitza) eta atzeko altuera, hareak ahalbidetzen badu, espigoiaren parean berdinduta. Aurrealdeko altuera 1,20 mt. eta 3,50 mt. artekoa da puntu bakoitzean (aldakorra da, espigoiarekiko hareak duen altueraren arabera, aurreko bi puntuetan), nibelatua eta zoru teknikoko gainazal bakar baten gainean muntatua. Instalazio horrek une oro errespetatu eta babestuko du pasealekuaren gainean dagoen baranda. Plataforma hori espigoiari lotuko zaio agertokiko egitura duten 2 pasabideren bidez, dagozkien mailak eta arrapalak barne, agertokiarekiko altuera-aldea gainditzeko.

- 4 katazulo edukiko ditu mahukak eta trussak pasatzeko eta plantxa galbanizatuarekin eta barandarekin babestuko dira, istripuak ekiditeko

- Bi alboetan eta atzealdean baranda perimetrala.

- Atzealdeko 2 pasabide, dorreen artean baranda dutenak, agertokia eta espigoia lotzen dituztenak.

- Hareako zoru teknikoaren gaineko berme-puntuek habe etzanak izango dituzte, eta horiek, aldi berean, alboraka mugitzea eragotziko duen sistema bat edukiko dute.

- Karga: gutxienez 750 kg/m2 (ziurtatua)

- Plataformaren espazioa ez da 350 metro koadrotik gorakoa izango.

IFK-CIF A20965414

A).2 ESTALKIAREN EGITURA + GROUND SUPPORT (ZIURTATUAK)

- 26x13m-ko estalkia, lurretik agertokira 9.50 m-ko altuera batean
- Albo bakoitzean gutxienez 4 eta gehienez 5 dorre edukiko ditu estalkiak
- Olanak sabaian, atzealdean eta alboetan beltzak, suaren kontrako materialarekin egindakoak (ziurtatua), zulorik gabe, hartara ur-iragazpenak saihesteko
- Atzealdeko olana 24 ordutan zehar nahi denean irekitzeko aukerarekin.
- Guztizko karga banatua: 11 t min. (ziurtatua).
- PA goratzeko karga partziala: 6 tn/u min. (ziurtatua) (3 t. eskuin eta 3 t. ezker).
- Haizearen kontrako erresistentzia: 80 km/h min. (ziurtatua).
- Estalkian instalatutako anemometroa, haizea neurtzeko.
- Estalkitik plataformara tenkagailuak, langileak eta materialak sar daitezen (albokoak eta atzekoak).

3. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

A) MUNTAKETEN ETA DESMUNTAKETEN SEGURTASUNA

- Enpresa esleipendunak altuerako lanetarako behar diren langile kualifikatuak esleitu beharko ditu kontratuaren exekuziora (dagokien segurtasun-materialarekin: arnesak, etab.) agertokiak muntatzeko, mantentzeko eta desmuntatzeko lanetan, eta, gainera, behar diren langile guztiek erabili beharko dituzte nahitaezko NBEak.

B) MANTENU ZERBITZUA

- Agertokiak muntatuta dauden bitartean, kontratuaren enpresa esleipendunak mantentze-lanetako langileak izan beharko ditu, argi, soinu eta bideo muntaketetan in situ laguntzeko prest, horien inguruan sor daitekeen edozein gorabehera konpontzeko. Laguntza hori, in situ, DONOSTIA KULTURAk jakinarazten duenetik gehienez ere ordubeteko epean agertu beharko da gorabehera izan den lekura. Kontzertuek iraun bitartean, pertsona batek egon beharko du bertan.
- Halaber, 24 orduko harremanetarako telefonoa izan beharko du, baldintza-agiri honen 6. klausulan eskatutakoaren arabera.

C) MUNTAKETAREN SENDOTASUN-ZIURTAGIRIA

- Teknikari eskudunak emango du eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAri emango zaio muntaketa amaitu eta **berehala**.

4. TOKIA ETA DATAK

Zurriolako hondartzako agertokia uztailaren 15ean (asteartea) hasiko da muntatzen, 08:00etan, JAZZALDIAk adierazitako leku zehatzean.

IFK-CIF A20965414

JAZZALDIAk uztailaren 22tik 27ra bitartean (biak barne) instalatuko ditu argiztapen-, soinu- eta bideo-materialak, soinu-probak, kontzertuak eta agertokiko materialak desmuntatzea.

Ondorioz, hornigaiak VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAri eman beharko zaizkio, behar bezala muntatuta, uztailaren 21ean, 22:00etan, Zurriolako hondartzan.

Uztailaren 28an (astelehena) hasiko da Zurriola hondartzako agertokia desmuntatzen, JAZZALDIArekin adostutako ordutegian eta faseka, eta uztailaren 29ko 23:59an amaituko da, gehienez ere.

5. JAZZALDIARI DAGOZKION ZEREGINAK

- Muntaia/desmuntaia/sarbideak eta abar burutzeko baimenak lortzea.
- Enpresako ibilgailuak espigoira sartzen laguntzea.
- Agertokiko erabiltzaileekiko koordinazioa.
- Materialak mugitzeko harea-makina.
- Materialak mugitzeko asfalto-makina.
- Motorrak igotzeko eta muntaiari laguntzeko ekipo elektrogenoa.
- Lurzoru teknikoaren instalazioa (gehienez 400 m2 guztira) hondarrean, agertokia egongo den espazioan.
- Sarbideak eta lan-eremuak oinezkoentzako eremu osoan ezartzeko beharrezkoa den hesia jartzea, baita agertokiak muntatzeko eta desmuntatzeko lanetan segurtasuna ere.

IFK-CIF A20965414

6. GUTXIENEKO GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Lizitatzaileek kontratuaren exekuzioari atxiki beharko dizkiote, gutxienez, honako giza baliabide eta baliabide material hauek:

- Enpresa kontratistak 24 orduko harremanetarako telefonoa izango du lanak hasten direnetik amaitu arte, egindako muntaketetan larrialdiren bat gertatuz gero.
- Ingeniari tekniko bat, gutxienez 3 urteko esperientzia duena agertokiak muntatzeko, desmuntatzeko eta mantentzeko lanetan.
- Taldeburu bat, gutxienez 5 urteko esperientzia duena agertokien muntaiak koordinatzen eta gainbegiratzen, eta honako eginkizun hauek dituena:
    - Kontratista erakunde kontratatzailearen aurrean ordezkatzea.
    - Kontratistaren solaskide gisa jardutea erakunde kontratatzailearen aurrean, kontratistaren eta kontratua betearaztera atxikitako langileen eta erakunde kontratatzailearen arteko komunikazioa bideratuz, kontratua egikaritzearen ondoriozko gaiei dagokienez..
    - Kontratatutako prestazioen exekuzioa koordinatzea eta erakunde kontratatzailearengandik jasotako aginduak praktikan jartzea, dagozkion aginduak, lana egiteko irizpideak eta lana banatzeko jarraibideak emanez.

VICTORIA EUGENIA
Antzokia

- Kontratua gauzatzera atxikitako langileek esleituta dituzten eginkizunak behar bezala betetzen dituztela gainbegiratzea, bai eta langile horien asistentzia kontrolatzea ere.

- Entitate kontratatzaileari jakinaraztea kontratua egikaritzeari atxikitako lantaldearen osaeran gertatzen diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak.

- Entitate kontratatzailearekin lankidetzan aritzea kontratuaren indarraldian sor daitezkeen arazoak konpontzeko..

- Erakunde kontratatzailearekin harremanetan jartzea, beharrezkoa den guztietan.

- Entitate kontratatzaileak deitutako bileretara joatea..

- Entitate kontratatzaileak eskatzen dion antzeko beste edozein lan egitea.

Donostian, sinadura elektronikoaren datan.

JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S

Digitalki sinatuta norengandik: JOSE JAIME OTAMENDI MUÑAGORRI - 15986694S
Data: 2024.12.05 15:06:24 +01'00'

Jaime Otamendi Muñagorri
Kudeatzailea

IFK-CIF A20965414